

Apirilaren 28.a Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna

Apirilaren 28 honetan Laneko Osasunaren eta Segurtasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da.

Azken hilabetetan gertatutakoari erreparatuz **gero ospatzeko ezer gutxi dago**.

Pandemiak **lantokietan segurtasun eta osasun arloan dauden gabezia handiak** agerian utzi ditu. ere laneko prekarietatea milaka langileen osasunak jasaten dituen hamaika kalteren pizgarria izan da.

Haren lana **banakako babes ekiporik gabe** egitera behartuta izan den osasungintzako langilegoa, ospitaleak supermerkatuetan, calle center-etan, etxeetarako banaketa zerbitzuetan eta antzeko beste lanbideetan **oinarrizko higie neurriak eta segurtasun distantziak bete ez** dituzten langilez beteta izan dira.

Bestalde agintariak COVIDa laneko arrisku bat ez zela erabaki dute. Honek enpresen “eskuak garbitzea” erraztu du, egiazki, kasu gehienetan **jendea lantokietan eta gainezka zeuden garraiobideetan kutsatu izan denean**.

Beste aldetik, anabasa hau antolatzeko Errege Dekretuen promulgazioa ez da eraginkorra izan. Gizartearentzat ezinbestekoak ez ziren jardueraz gain beste guztiak ixtea mahai gainean jarri zenean, **enpresariak izan ziren ezinbesteko zerbitzuak zein ziren erabaki zutenak**.

Lan ikuskaritza arautegia betetzen ez zuten **lantokiak ixteko ezgai agertu zelako** eta azken finean erantzunkizun hori zuten **Osasun Sailek ere ez zutelako ezer egin**. Hoiiek egunero mila hildakotik GORA ziren egunak ziren.

Ekonomia pertsonen bizitzaren aurretik jarri delako. Sistema guztia horretara bideratuta zegoen eta Osasun Ministerioaren jarraibideak edota herrialde honetako enpresa gehienek lan antolaketan errotuta zegoen logika hori aldatzera zuzendutako neurriak ez dira nahikoak izan. **Horregatik pandemiak joko kanpo harrapatu gaitu**. Aurretik ere herrialde honetako prebentzio kulturen nagusi den ezerk edo ezer gutxi ez duelako funtzionatzen.

Aurten ez dugu lan istripuen gorakada aztertzen laguntzeko zifra fidagarriarik. COVIDa ez da erregistroetan sartuko **ez dutelako lan arrisku gisa aitortu**. Hala ere haien etxetik lan egin izan ez duten pertsona guztientzat lanarengatik pairatu behar izan duten arrisku bat izan da.

Dirua pertsonen bizitzaren gainetik Jartzen duen kultura hau aldatzeko lan egin behar dugu. Prebentzioa lan jardueraren barnean txertatu; ikuskaritzaren ondorioak eta isunak sahiestu aldera “agiriak egunean izateko” betebeharrak soil bat izan ez dadin; arauak **langileen osasuna edo segurtasuna gutxien denean lan ikuskaritzak zigor neurriak proposatu behar dituela dioen arren gutxitan gertatzen da**.

Lan arriskuen prebentzioa edukirik gabeko hitz hutsen ordez langileen osasuna eta segurtasuna babestuko dituen neurri erreal eta eraginkor multzo bat bihurtu dadin lan egin behar dugu.

Arriskurik gabeko lana

Osasuna guztiontzat

Lanaren Konfederakunde Nagusia